



Hogeita hamar euskal enpresa parte hartzen ari dira XXXII. La Habanako Nazioarteko Ferian-FIHAV

- *Kubak kanpo aldera begira duen erakusleihorik garrantzitsuena da larunbat arte luzatuko den feria hau.*
- *Euskal enpresak Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin parte hartzen duten Sektoreaniztuneko feria bakarra da.*
- *31 euskal enpresak gaur inauguratu den euskadiko pabilioian kokatuko dira.*

Donostia, 2014ko azaroak 3. Gipuzkoako Bazkundera buru izanik, Eusko Ganberak Kubara itzuli dira euskal enpresak Kubako merkatura gerturatzeko asmoz. Euskal Ganberak koordinatutako euskal enpresen parte hartzeak Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasunaren saileko laguntza jaso du.

Edizio honetan eta Kolonbia-La Habanako misio instituzionalaren eremuan Gipuzkoako Foru Aldundia FIHAV ferian izango da.

Euskal Ganberak 1999 urtetik antolatzen dute euskal enpresen parte hartzea feria honetan. Larunbat arte luzatuko den edizio berri honetan enpresek euren presentzia finkatu nahi dute Kubako erakusleho komertzial garrantzitsuena den honetan, FIHAVen, beraien produktuak erakutsiz. Ferian parte hartuko duten 31 enpresak sektore anitzekoak dira, energia, motoreak, elektrizitate maneiak eta hotel hornikuntza sektoreak nabarmentzen direlarik. Guztiak, gaur inauguratu den Euskadiko pabilioian kokatuko dira.

La Habanako feria kontaktu gunea bat da. Kubako enpresa garrantzitsu guztiak pasatzen diren gunea da, oso feria egokia beraz herrialdean sartzeko edota bezeroak diren edo izan daitezkeen Kubako enpresa guztiekin kontaktuak berritzeko.

Kuba aukeren merkatua

Gaur egun, Kubako ekonomian eman behar den aldaketa handia kanpoko inbertsoreei irekitzean datza eta hauek egunerokoan izango duten ondorioa ikustea.

2013 eta 2014 urteetan zehar Kuban bi lege berri atera dira atzerriko inbertsioa sustatzeko, bata Mariel udalerrientzat eta bestea gainontzeko udalerrientzat. Lege berri hauek sustagarri fiskalak txertatzen dituzten arren ez dituzte inbertsoreentzat oinarritzekoak diren arlo batzuk argitzen, lege hauek nola ezartzen diren eta nola interpretatzen diren itxoin beharko da beraz.



Kubaren hazkunde ahalmena, epe luze eta ertain batean, egitura produktiboa eta ekonomiaren kudeaketa aldatuko duten berrikuntzen eraginkortasunari baldintzatuta dago.

Berrikuntzak pixkanaka sartzen ari dira, baina denbora asko beharko da egitura produktiboaren aldaketa egiaztatu ahal izateko.

Kontutan hartu beharreko beste gai bat dualtasun monetario eta honen desagertzea da. Honetarako froga pilotu bat egingo da enpresa eta hiri jakin batzuetan, euren balantzetan eta emaitza kontuetan oraingo 1/24aren antzeko aldaketa aplikatuko da honek duen eragina ikusteko. Baina beste enpresa batzuetan ere aldaketa ezberdinak egiten ari dira 1/14 -1/16 balantzeetan izango duten eragina ezagutzeko.

Laburbilduz, merkatu aldakor baten aurrean gaude, baina aldaketa hauek oso poliki egiten ari direla kontutan izan behar dugu eta ekonomiaren aktore nagusia estatua izaten jarraitzen duela.

Esportazioak EAetik Kubara (mila eurotan)

	2012	2013	Urtarrila- Abuztua 2014
Lau sail garrantzitsu			
Makinak eta aparatu mekanikoak	40.106,4	42.928,5	18.123,2
Gailuak eta material elektrikoa	30.630,4	36.811,9	9.840,9
Galdaketa manufakturak, burnia eta altzairua	17.379,3	17.411,6	4.492,5
Burni galdaketa eta altzairua	10.140,9	10.168,4	3.031,1
Lau sail garrantzitsuak GUZTIRA	98.257,00	107.320,40	35.487,70
GUZTIRA Esportazioak Kubara	143.307,2	153.138,5	57.108,1

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Irune Bengoetxea

ibengoetxea@camaragipuzkoa.com

943 000 310 / 688884347